

EAEko 2016rako hezkuntza-aurrekontuak: 2012az geroztik pairatutako murrizketen jarraipena

Atzo, abenduak 23, Legebiltzarrean Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuak onartu ziren EAJ eta PSEn arteko akordioari esker. 2012ko urriko hauteskundeetan ostean osatu zen gobernuaren laugarren aurrekontua izango da, beraz, aurtengoa (eta azkena?), 2013koa aurreko gobernuarengandik eginda jaso bazuen ere. Horrenbestez, badugu datu eta kopuru nahikoa EAEko hezkuntzarako gastu publikoaren 2012. urtea eta 2016. urtea bitarteko garapena baloratzeko.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak 43 milioi euro gehiago izango ditu 2016an (% 1,53 gehiago) eta, guztira, 2.841.886 milioi euroko aurrekontua izango du. Baina ez da lehen aldia aurrekontu handiagoa batek gastuaren murrizpen nabarmena ezkututzen duela. PSEk —murrizketa-politika abian jarri zuena— EAJk —politika horrekin aurrera jarraitzen duena— esaten digute aurrekontua nabarmen handitu dela, une honetan lehentasunak jarri behar diren arren, konpromiso saihestezinak baitaude: zerga ordaintzea, defizit publikoa % 0,3 murriztea, egungo zerga-politika, AHTa...

Era berean, beren proiektuaren onberatasunaz konbentzitu nahi gaituzte, beren esanetan, hemen ez baita murrizketarik egin zerbitzu publikoetan, eta egin badira, Madrilgo gobernu maltzurak behartuta egin dira, eta gainera, neurri aringarriak hartu dira.

Alabaina, adierazle nagusiak aztertuz gero, argi geratzen da hezkuntzarako gastu publikoa murriztu egin dela aurrekontu-proiektu honetan, eta murrizketa hori Urkulluren gobernuak 2013tik egindako beste batzuei erantsi behar zaie. Beraz, beste behin ere, komunikabideetan esaten dena ez dator bat benetan egiten denarekin eta beste lehentasun batzuk lehenesten dira gastu sozialaren ordez.

Hezkuntza Sailarentzat baina, ez dago une egokirik aurrekontuaz hitz egiteko: murrizketarik egiteko asmorik duen edo ez (ez gara soilik lan-murrizketez ari) edo nahikoa den beharrei aurre egiteko (obretarako partidetan izandako murrizketa handiek oztupo ikaragarriak ekarri dizkiote eskaintza publikoari hainbat herritan) edo helburu egokienetarako erabiltzen ote den (hor dago kooperatibetarako eta fundazioetarako aparteko finantzazioari buruzko polemika edo ikasleak sexuaren arabera bereizten dituzten ikastetxeen kontzertazioa).

Hala, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu orokorra **% 2,77** hazi bada ere, 2015ekoarekin konparatuta, 10 hezkuntza-programen gastua guztira **% 1,39** besterik ez da hazi. Patxi Lopezen gobernuak onartutako azken proiektuaren (2012) datuak aztertzen baditugu, argi ikusiko dugu onartutako aurrekontu orokorra **% 3,52**

handiagoa bada ere, hezkuntzako gastua **% 1,72 murriztu** dela. —2016rako aurrekontua ez da 2009koaren mailara ere iritsiko—. Are gehiago, 2016rako hezkuntzarako aurrekontuan gehitutako kopuruaren zati handi bat —35,7 milioi euro — soldatetan gastatuko da, gobernuak hartutako konpromisoak betetzeko (% 1eko igoera soldatetan eta 2012ko aparteko ordainsariaren % 25 itzultzea). Izan ere, langileekin zerikusia duten gastuak alde batera utzita, aurrekontua **% 0,73** besterik ez da hazi (10 milioi euro).

2012. urteaz geroztik, hezkuntzarako gastua murriztuz joan da aurrekontu orokorra kontuan hartuta. 2015ean aurrekontuaren **% 24,13** izan zen hezkuntzarako, eta aurten **% 23,80** besterik ez da izango. **33,7 milioi euro** gehiago behar lirateke hezkuntzak 2015ean zuen pisua izan dezan eta **138,9 milioi euro** 2012ko mailara iristeko. Horixe da errealitatea.

BPG kontuan hartuz gero, Eusko Jaurlaritzak hezkuntzarako gastua murriztuko du laugarren urtez jarraian. Zehazki, **0,04 puntu** murriztuko da (**% 1**), aurreikusitako BPG kontuan hartuta. 2012az geroztik **0,32 puntuko** murrizketa pilatu da (% 5,33). Estatuko batez besteko gastua berdindu nahi bagenu (2013an BPGren % 4,29), **300 milioi gehiago** beharko genituzke. Eta erreferentziatzat BPGren % 6 kontuan hartuko bagenu (Elkarlan eta Garapen Ekonomikorako Erakundeak gomendatutakoa), hezkuntzarako aurrekontua **4.000 milioi eurokoa** izan beharko litzateke, EAJk eta PSEk adostutakoa baino **1.400 milioi euroko gehiagokoa** (% 53 gehiago).

Horrez gain, kontuan hartu behar da neurri txikian bada ere, ikasleko gastua ere murriztu egingo dela. Gure kalkuluen arabera, aurten, 7.051 euro izango dira *per cápita*, 2015ean baino 14,4 euro gutxiago. 2012az geroztik, murrizketa etengabea izan da arlo honetan ere, eta guztira % 7,43koa izatera iritsi da (guztira 566 euro gutxiago ikasleko).

Horiek dira datuak. Beraz, begi-bistakoa dirudi, begiratzen den ikuspegitik begiratzen dela, azterketaren emaitzak zalantzan jartzen duela Eusko Jaurlaritzak dioena eta **Cristina Uriarte** sailburuaren kudeaketa bera. Euskal gizartea ohartarazi nahi dugu, administrazioa gezurra esaten ari baita, eta urtez urte hezkuntzarako gastu publikoa murrizten ari delako.

Adostutako aurrekontuarekin ezinezkoa da eskola publikoaren beharrei erantzutea eta lan-murrizketak egin beharko dira berriz ere. Era berean, onartezinak eta ikuspegi sozialetik zalantzarriak iruditzen zaizkigu sare pribatua finantzatzeko irizpideak; izan ere, hezkuntza sistema duala bultzatzen ari da eta hierarkizazio soziala sustatzen.

Joera hau geldiarazten ez badugu, estatu espainiarrean bertan baino gastu txikiagoa izango dugu, eta urte asko beharko dira galdutakoa berreskuratzeko. Horrenbestez, EAEko aurrekontu-politika errotik aldatzea beste irtenbiderik ez dago.

